

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Bi urtez zaharberritzen ibili ondoren, Vesollako ermita erromanikoak (XII. mendea) jendearentzako atek ireki ditu estreinakoz

Jabetza partikularrekoa, haren titularrek tenpluaren bisiten kudeaketa Kulturako Zuzendaritza Nagusiari baimendu die

Lunes, 05 de octubre de 2015

Behe-mendiko paisaia ireki batean, Ibargoiti ibarreko jabetza pribatu batean dagoen Vesollako ermita, XI-XII. mendeko eliza erromaniko txiki bat da, balio historiko eta artistiko handia du, eta narriadura-egoera larrian zegoen.



Vesollako ermita.

Ardientzat artegi-lanak egiten zituen hondakinez inguratuta, haren barnean bi zatitan banatutako habearte bakar batera sartzen zen, era oparoan pintatutako burualde erdi zirkular batekin.

Tenpluaren oinarrian erantsitako eraikuntza bat zegoen, portalearen mailatik, eta etxebizitza izateko balio zuen. Eta haren alboan, baserri txiki baten arrastoak.

Utzita egon den denbora-tarte guztian, tenplua "Nafarroako landa erromanikoa" izenekoaren barnean ale interesgarria izan da, eta horri barneko hormak apaintzen zituen pintura errenazentisten pinturak gehitzen zaizkio. Arrazoi hori tarteko, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak haren birgaitzeaz arduratu zen 2014an eta, haren truke, eraikineko titularrak tenpluari atxikitako etxea eraisteko baimena eman zion, bai eta bisita publikoak egiteko ere zuzeneko kudeaketaren edo beste batzuen bitartez.

2015ean zehar luzatu dira lanak eta, orain, birgaitu berritan, Kultura, Gazteria eta Kiroletako kontseilari Ana Herrerak gaur goizean bisitatu du Kulturako zuzendari nagusi Fernando Pérez Gómezekin batera; bertan izan dira ere, Ondare Zerbitzuko zuzendari Jesús Ascunce; Ibargoitiko alkate José Javier Eslava; zaharberritze-lanetan parte

hartutako enpresetako ordezkariak eta jabetzaren titularreko bat.



Herrera kontseilaria ermitaren barnean.

Zaharberritze-lanak

Zaharberritzea bi fasetan egin da: lehenengoa, 2014an, 344.617,28 euroan esleitu zen, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsak kofinantzatu zuen % 50ean, EGEF Programa Eragilearen bidez, eta honako lan hauek egin ziren: estalkia zaharberritu, atxikitako etxea eraitsi, hormak kanpoaldetik zaharberritu, estaldurako piktoriko muralaren estratuak aztertu eta burualdeko orma-pinturak zaharberritu.

Bigarrenean, 2015ean, barnealdeko zaharberritzea egin da, eta haren barnean sartu dira: habearteko horma-pintura, korua, zola, altzariak eta elizarako sarbidea. 159.069,16 euroko kostua izan du.

Zaharberritzea Leopoldo Gil Cornet arkitektoak eta Violeta Romero Barrios ondasun higiezin zaharberritzaileak proiektatu eta zuzendu dute, biak ala biak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko teknikariak; obrak Agoizko Construcciones Leache S.L. enpresak egikaritu ditu, eta hormetako estalduren zaharberritzea Deikazteluko Sagarte, S.L. enpresak.

Garai bateko eliza-jaurerria

Julio Caro Barojak Nafarroako herri, hiribildu eta hirien izenen hiztegi etimologikoan azaldu zuenez, Vesollako hiribildua "garai bateko eliza-jaurerria zen, eta haren titular Aznar López de Vesollak Leireko monasterioari eman eta konfirmatu zuen 1093an Santa Mariako bere elizarekin, bere mugartearekin, Loitiko "basoaren" bere zatiarekin, Ezpelduyako bere "mahasti nagusiarekin" eta bertako gizonen "petxarekin" ("gaileta" eta "delgata") eta "lanekin".

XII. mendean sartu berritan, monasterioa Iruñeko artzapezpikuzarekin auzitan ibili zen jabetza-eskubideagatik, eta monasterioan jarraituko zuen.

Dirudienez, nobleen jaurerri bihurtu zen geroago, Vianako Karlosek Juan Martínez de Urizi 1453an egindako emakidan, eta azkenean markesgo bihurtu zen titulu hori José Elío 1701an eman ondoren.

XIX. mendera arte administrazio berezia izan zuen jaurerri izateagatik, orduan bere izena zuen markesarena zena, eta horregatik alkateak izendatzen zuena. 1802ko hiztegiak bost etxe ematen dizkio 34 arimarekin.

Eliza

Purifikazioaren eliza eremuko iparraldean dago. Bi zati zuzenetan banatutako habearte batek eta presbiterio sakon batek osatzen dute, eta erdi zirkularra den abside batean amaitzen da. Absidea labe-ganba batek estaltzen du, eta aurretik duen zati zuzena, berriz, eta habeartea kainoi puntaduneko gangak. Tenpluaren oinetan egurrezko koro soil bat altxatzen da. Habearteak horma-pintura errenazentista ia osorik kontserbatzen du.

Oin karratuko sakristia bat burualdeari lotzen zaio Evangelioaren aldetik. Haren barnealdean horma-pintura kontserbatzen da (XIX. mendekoa, ziur asko). Mendebaldeko piñoiaren gainean kanpai-horma bat

altxatzen da.

Garai ezberdinetako polikromia eta gainjarritako kareztadurak kontserbatzen dituen portalea ere erromanikoa da; epistolaren horman zabaltzen da bi arkibolta lauekin eta kanpoko hauts-babesarekin diamante-puntekin apainduta. Arkibolten euskarri modura zutabeak erabiltzen dira txori, aurpegi eta gurpilekin apaindutako arroin eta kapitelen. Fusteak harlanduetan landuta daude.

Portaleko erdialdean tinpano bat ageri da krismoiarekin.

Galería de fotos



Ermita eta atxikitako etxea.



Ermitaren irudia atxikitako eraikinik gabe.